

Kubako gobernuak Xabier Artola ikertzaile donostiarrari Carlos J. Finlay Ordena eman dio

: 24/02/2023

Donostia
Gizartea



2023/02/24

Xalba Ramirez

Xabier Artola Zubillaga Euskal Herriko Unibertsitateko ikertzaileari (Donostia, 1957) Carlos J. Finlay 2022 Ordena eman berri dio Kubako Zientzia, Teknologia eta Ingurumen ministerioak. Kubak bertako eta atzerriko zientzialariei ematen dien kondekoraziorik gorena da sari hau.

Kubako gobernuak Xabier Artola [HiTZ zentroko](#) eta [Ixa taldeko](#) kideari Kubarekiko lankidetzaz zientifikoaren bi hamarkada baino gehiago aitortu dizkio, bereziki Santiago de Cubako Zientzia, Teknologia eta Ingurumen Ministerioaren Hizkuntzalaritza Aplikatuaren Zentroarekin (CLA, Centro de Lingüística Aplicada) egindakoa. Besteak beste, Xabier Artola doktoreak, Ixa taldeko beste ikertzaile batzuekin batera, azpiegitura konputazional bat garatu du Hizkuntzalaritza Aplikatuaren Zentroko ikertzaileekin batera. Azpiegitura hori funtsezkoa izan da *Diccionario Básico Escolar* hiztegiaren edizio elektronikoak eta inprimatuak lortzeko; hiztegia Eloina Miyares Bermudez eta Vitelio Ruiz Hernandez doktoreek sortua da, eta egun CLAk mantendu eta berritzen du. Xabier Artolak Kubako Santiagoko Udal Gobernuak 'Bisitari Goraipatua' saria jaso zuen 2005ean.

Artolak adierazi duenez “ohore handi bat da”, bai berarentzat eta baita EHUrentzat ere: “Kubako zentrokoen eta Ixakoen arteko lankidetzak emankorra izan da urte hauetan, ikerkuntzan zein Hizkuntzalaritza Aplikatuaren Zentroak antolatzen dituen sinposioei dagokienez, eta etorkizunean ere hala izaten jarraitzea espero dugu”. Adierazi duenez, egun esku artean dituzten proiektuez gain, beste eremuetan zabalduko dituzte elkarlanak bi erakundeok, hala nola, hizkuntza-teknologiaren aplikazioa irakaskuntzan eta sare neuronaletan oinarritutako ikaste tekniken aplikazioa hizkuntzaren prozesamenduko hainbat arlotan, besteak beste.



Xabier Artola Zubillaga Euskal Herriko Unibertsitateko Informatika Fakultateko irakaslea izan da, 1985etik. 2008tik aurrera, irakasle agregatua, eta 2022ko maiatzetik hona, jubilatua eta gero, ohorezko lankide akademiko gisa jarraitzen du unibertsitatearen barruan. Irakaskuntzari dagozkion lanak Informatika lizentziatura eta ingeniartzetan egin ditu, eta orobat eman ditu eskolak hainbat master eta doktorego ikastarotan ere. Ikerkuntzari dagokionez, berriz, hizkuntzaren prozesamenduan diharduten Ixa taldean eta HiTZ hizkuntza-teknologiako zentroan ari da. Hizkuntzaren tratamendu automatikoaren arloan beti, eta batez ere morfologia eta lexikografia konputazionalan, eta corpus-hizkuntzalaritzan.

Irakurri berri duzun edukia gustuko baduzu, euskaraz bizi nahi baduzu eta Donostiako auzo guztiek behar duten ahotsa izaten jarraitzea nahi baduzu, **proiektua ekonomikoki babestera animatu nahi zaitugu.**

Publizitatea eta erakundeen diru laguntzak ez dira nahikoa **IRUTXULOKO HITZA**ren etorkizuna **bermatzeko**. Zuekin osatutako komunitateari esker, **Donostian gertatzen dena sakontasunez aztertu eta kontatzeko** baliabide gehiago izango ditugu.

Donostiarrok
behar dugulako,

egin zaitez

HITZA *hida*